

# ARKEOLOGIA NAIZ

Ekainberrira gerturaten zaretenean arkeologoen lana egingo duzue, baina horretarako oso ondo ezagutu behar duzue alde batetik arkeologia zer den eta bestetik, aztarnategi batean zer aurkitu dezakegun eta zehatz mehatz hitz horrek zer esan nahi duen. Hiztegiak, liburuak, internet erabili ditzakezue bi hitz hauek modu labur eta argian definitzeko.

**Arkeologia:**.....  
.....  
.....  
.....

**Aztarnategia:**.....  
.....  
.....  
.....

Kontzeptu hauen esanahia argi baduzue berehala atzemango duzue hurrengo esaldietatik zeintzuk diren egia eta zeintzuk gezurra.

**Indiana Jones pelikulako protagonista arkeologoa da.**



**Arkeologiak historiaurrea soilik aztertzen du.**



**Arkeologian talde lana ezinbestekoa da.**



**Arkeologoek dirutan oso baliotsuak diren altxorrak bilatzen dituzte.**



**Arkeologoen lanaren zati garrantzitsu bat laborategian burutzen da.**




**Arkeologoek palak, atxurak eta karretilak erabiltzen dituzte.**



**Arkeologiak ez ditu marrazkiak, irudiak, artea aztertzen.**





Arkeologiak gure aurretik bizi izandako gizarteak eta hauen bizimodua aztertzen ditu eta horretarako eurek utzitako materialak edo aztarnak bilatzen dituzte aztarnategietan. Baina aztarnategi mota ugari daude eta horiek aztertzeko arkeologiak metodo eta tresna desberdinak erabili ditu. Aipatutakoa kontutan hartuta hiru multzo handi egin ditzakegu, ur azpiko arkeologia, historiaurreko arkeologia eta arkeologia historikoa.


### Argazki hauetako bakoitzari hiru horietatik zein dagokion idatz ezazue.



Baina edozein izenondo duela ere, arkeologia beti da arkeologia eta gure historia ikertzeko erabiltzen den zientzia honek lan desberdinak hartzen ditu bere baitan. Arkeologoek lana lau pausu nagusitan bana dezakegu: aztarnak egon daitezken lekuen identifikazioa, indusketa arkeologikoa bera, laborategiko lana eta ondorioen zabaltzea.

Indusketa arkeologikoan jarriko dugu arreta, orain. Metodo honen bidez gure aurretik bizi izan ziren gizakien aztarnak bilatu eta ondo dokumentatzen dira. Arkeologoek beraz, ez dute lurra altsatu eta atera bakarrik egiten, baina hori egitea ezinbestekoa da lur azpian geratu diren antzinako tresna, eraikuntza, hezur eta gainontzeko materialak bilatzeko.





Lan horretan aritzeko tresna desberdinak erabili ohi dira. Horietako batzuen argazkiak dituzue jarraituz, bakoitzari dagokion izena jarri eta bi multzo handitan banatu beharko dituzue, alde batetik normalean arkeologia historikoan erabiltzen diren lanabesak eta bestetik historiaurreko arkeologian ohikoagoak direnak.




Halako tresnak erabiliz, batzuk antzekoak, besteak oso desberdinak antzinako objektuak aurkitu ohi dituzte aztarnategietan. Arkeologia historikoan batez ere eraikuntzen egiturak agertzen dira eta baita tamaina handiko materialak ere.



Historiaurrekoetan arkeologian aldiz, egiturak gutxiagotan agertzen dira eta topatutako materialak txikiagoak izan ohi dira. Horixe da, tresna eta lan egiteko modu desberdinak erabiltzearen arrazoi nagusia.





## EKAINBERRIN EGON ONDOREN

Ekainberrin egon ondoren jarraian agertzen zaizuenaren gainean ausartu ezazue. Arkeologoek indusketan egindako lanaren ondoren, laborategiko lan luze eta gogorra dute aurretik, aurkitutako pieza bakoitza ondo aztertu, neurtu, pisatu, marraztu... Guzti horrek oso helburu argia du, material horiek osotasun bezala ulertu eta hortik abiatuta gure arbasoen bizimoduaren inguruan datu eta informazio gehiago izatea.



*Arkeologoen eta bere lan taldearen lana hor amaitzen al da?*

*Industu, aztertu, ondorioak atera eta ondoren zer?*

Oso garrantzitsua den pausoa da hurrengoa, ondorio horiek zabaltzea, gizarteratzea, jendeak ezagutu eta ulertzeko moduan adieraztea.

*Lan hori egiten al dela uste al duzu?*

*Modu asko daude ondorio horiek zabaltzeko. Zenbat ezagutzen dituzu? Zein iruditzen zaizu baliagarriena?*

**TALDEKA BILDU ETA GALDERA HAUEN INGURUAN HAUSNARTU ETA EZTABAIDA EZAZUE.**

